ASMOZ TA JAKITEZ

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

2002 martxoa/marzo/mars
Nº 121 zenb.

# Assemblée Générale en Iparralde

## Neurri zehatzak onartu ziren euskarazko ikerketak sustatzeko

Eusko Ikaskuntza Iparralde a célébré son Assemblée Générale ordinaire le samedi 2 mars à la Maison des Jeunes de Sare. Jean Aniotzbehere, maire de Sare, présida la cérémonie et accueillit chaleureusement les participants. Dans son intervention, le maire de Sare rappela que la municipalité labourdine reste à la disposition d'Eusko Ikaskuntza afin que la Société organise des activités.

Le vice-président Jean-Claude Larronde présenta le rapport moral de la Société durant l'année 2001. Parmi toutes les activités, on remarque les réunions académiques sur les relations transfrontalières dans le contexte de la nouvelle Europe: les IIIe, IVe et Ve Journées Eurocité Basque, et le colloque Mobilité et contrat de travail international. Il convient également de mentionner la signature d'une convention avec la Municipalité de Senpere qui permit la publication de *Senpereko Kantu xaharrak* au sein de la collection Lankidetzan. Les textes des colloques sur Eugène Goyheneche et Madeleine de Jauréguiberry ont été publiés dans cette même édition.

Le rapport financier d'Eusko Ikaskuntza d'Iparralde, fait par la trésorière, Sylvie Toffolo-Fagoaga, présente pour 2002 une augmentation du budget de 41 %. De ce budget 45 % seront destinés à des nouveaux projets. Les comptes et la gestion de l'année furent approuvés à l'unanimité avec une seule abstention. On procéda ensuite à la substitution de deux places vacantes au Conseil d'Administration.

### Société de recherche

Le président, Jean Fagoaga, communiqua aux assistants l'intérêt manifesté par les institutions pour le financement des projets de recherche, à condition qu'ils aient un niveau de qualité et qu'ils représentent un apport réel pour la culture et la science basques. Il rappela à ce moment-là qu'Eusko Ikaskuntza Iparralde, est, essentiellement, "une société de recherche". Jean Fagoaga confirma son souhait d'étendre l'action culturelle de la Société dans les trois provinces d'Iparralde, particulièrement dans le Pays de Soule-Zuberoa.

### Soutien à l'euskera

L'Assemblée occupa une bonne partie de son temps à réfléchir sur la façon de promouvoir l'euskera dans l'activité de la Société, et particulièrement parmi les chercheurs. Selon le vice-président Jean-Claude Larronde, sur les dix bourses accordées pour la recherche au cours du dernier exercice pour un montant total de 11.281 euros, la moitié fut destinée à des projets en euskera. Après un débat animé au cours duquel furent exposés divers points de vue, la présidence soumit au vote une proposition pour stimuler économiquement de 50 % les mémoires de recherche en euskera. La motion suivante fut adoptée: «L'assemblée générale décide avec 12 voix pour et 6 voix contre, de valoriser et d'aider les mémoires en euskera, avec un montant supplémentaire de 50 %». Cette décision sera appliquée par le jury qui octroie des bourses.



**Asamblea en Sara**

En la imagen el alcalde de Sara (de traje oscuro), flanqueado por Jean-Claude Larronde (a su derecha) y Jean Fagoaga (a su izquierda).

# Eusko Ikaskuntza - Baiona Hiria 2001eko sariak

Iragan otsailaren 28an, Baionako herriko etxean, Bernard Massek, kultur zinegotziak, 2001eko Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria euskal kultur sariak eta bideo dokumental sarien banaketa kudeatu zuen.

Jean Fagoaga Iparraldeko Eusko Ikaskuntzako lehendakariordeak ongietorriko hitzen ostean, eta Silvi Toffolok Bello Porturen daturik azpimarragarrienak irakurri ondoren, Bernard Massek Javier Bello Portu musikalari eta orkestra zuzendariari Ohorezko Saria adierazten duen euskal makila eman zion.

Sariduna, 1920an Gipuzkoako Tolosan sortua da. Eduardo eta Ignacio Mocoroa jaunekin solfeoa, harmonia, pianoa eta konposaketa landu zituen. 1943an Tolosan "Felipe Gorriti Eskolania" ospe handiko abesbatza osatu zuen. Ondoren, Donostiako orkestra Filarmonika zuzendu zuen. Geroxeago, Pariseko musika kontserbatorio nazionalean sartu zen Blot, Fourestier eta Bigot maisuen irakaspenak berenganatuz. 1959an Sienne hiriko "Chigiana" akademian orkestra zuzentzaile diploma eskuratu zuen. 1960an Ernest Ansermet orkestra zuzendari ospetsuaren lankide izan zen Geneve hirian. Javier Bello Portuk nazioarteko karrera segitu zuen Sienne, Salzbourg, Marseille, Lyon, Madrid, Avignon eta Iruñean. 1971 geroztik Loyolako Musika festibalaren zuzendari artistikoa da. Euskadiko Orkestra eta Bilbokoa ere zuzendu ditu. Bere obren artean aipagarriak dira: *Lantzeko ihauteria*, *Euskal Herria*, *El borracho burlado* eta *Soule*. Euskal Herriaren musika ondarea zeharo aberastu du.

Honez gain, Euskal Kulturari lotuak dauden bi ikerlan izan ziren sarituak. Bata, Emilia Ciobotarlu, sortzez errumaniarra, Lapurdin bizi izan dena azken hamar urte hauetan. Europako hiru kulturen arteko ikerketa burutu du: *Etude sur l'imaginaire de trois cultures européennes: Basque, Celte et Roumanie*. Tesia aurkeztu zuen 2001eko ekainean Bordele III Montaigne unibertsitatean eta laudorio gorenak eman zizkioten. Maite Lafourcadek saridunaren merituak aipatu zituen Baionako ekitaldian.

Bestea, Frederic Duhart da. Historian ikerlaria Pariseko E.H.E.S.S. unibertsitatean, jadanik argitaratu duen lanagatik *Habiter et consommer à Bayonne au XVIIIème siècle* liburuarengatik izan zen saritua. Jean Claude Larrondek azaldu zituen saridun honen nondik norakoak.

Laugarren sariduna François Althabegoity da, zuberotarra, pastoralaren gainean bideo dokumentala egin duena. Grabaketa horretan, herri bateko biztanle guztiak pastorala ekoizteko nola biltzen diren eta sei hilabeteren buruan herriko antzerkia nola antzezten duten erakusten da: Eskiulako Madeleine de Jauregiberriren pastoralaren antolaketa eta antzezteari dagokio bideoa.



www.eusko-ikaskuntza.org / www.euskoshop.com / www.euskonews.com



# El arte de los siglos XVIII y XIX, revisado

Positivo balance de las IV Jornadas de Arte Vasco, que este año se ocuparon de revisar el arte neoclásico y el romántico. Durante tres días (del 28 de febrero al 2 de marzo), en el Palacio Miramar de Donostia medio centenar de estudiantes y estudiosos siguieron las ponencias y comunicaciones presentadas.

En el acto inaugural Ana de Toledo, vicepresidenta por Gipuzkoa de Eusko Ikaskuntza, anotó la pertinencia de ir poniendo al día los estudios vascos, también en el campo del arte, a la luz de las nuevas percepciones, la nueva sensibilidad y los nuevos elementos de análisis que van surgiendo. En el mismo sentido, Luis Mª Bandrés, Diputado de Cultura de Gipuzkoa, calificó de "encomiable" esta labor de estudio y revisión. Como complemento lúdico, en un cine de la ciudad se proyectaron cuatro películas relativas a ambos periodos y se realizó una excursión por algunos monumentos neoclásicos vizcaínos.

## Todo en un libro



Los textos íntegros de las cinco ponencias y de las 22 comunicaciones presentadas a lo largo de las Jornadas de Arte Vasco ya están al alcance de todos los interesados en el volumen número 21 de *Ondare*, Cuaderno de Artes Plásticas y Monumentales.

La edición, profusamente ilustrada, incluye asimismo una Bibliografía exhaustiva y actualizada de los estudios existentes sobre arte neoclásico y romántico estructurada por territorios y disciplinas. Un total de 500 páginas que conforman una herramienta fundamental para la historiografía artística en ambos estilos dentro del contexto cultural vasco.

# Azkoaga 8, ante la Prensa

*Trabajos sobre Ordenación y Gestión del Territorio de Euskal Herria, I.* Con este título se presentó ante la medios de comunicación el número 8 de *Azkoaga*, Cuaderno de Ciencias Sociales y Económicas de Eusko Ikaskuntza. Fue en la sede de Eusko Ikaskuntza de Bilbao el 14 de febrero, con intervención de Martín Arregi, director del Departamento de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, Juan José Goiriena de Gandarias, presidente de Eusko Ikaskuntza, y Guillermo Meaza, director del Curso Ordenación y Gestión del Territorio 1997-1998, cuyos resultados de investigación recoge este volumen.



**Reunión de Presidentes.** Los presidentes de las Secciones de Eusko Ikaskuntza se reunieron el 14 de febrero en Donostia. Entre otros asuntos, estudiaron las 65 solicitudes de ayudas a la investigación presentadas por los miembros de las Secciones para el año 2002. La Comisión Académica tiene prevista la aprobación de la lista definitiva de proyectos becados en su reunión del día 15 de marzo.

# Jarraipen Batzordearen lehen bilera Gasteizen

Otsailaren 11an bildu zen lehen aldiz, Hitzarmen Markoaren arabera sortu beharreko Jarraipen Batzordea. Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako idazkaria buru zelarik, hiru Diputazioetako ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Hezkuntza, Justizia eta Lurraldearen Antolakuntza sailetakoak bildu ziren. Eusko Ikaskuntzaren aldetik, berriz, lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta gerentea egon ziren.

Batzordearen osaketa ofiziala zen bilerako helburu nagusia. Baina horrezaz gain, Eusko Ikaskuntzak 2002erako prestaturiko aurrekontuen azterketari ekin zitzaion, ondorioen zehaztapena hurrengo bilera baterako utzi bazen ere.

Hitzarmen Markoaren arabera, Jarraipen Batzordeari dagokio Eusko Ikaskuntzaren urteko jardueraren mugaketa, eta horretarako egutegi aproposa finkatu behar da. 2002an zehar Batzordeak lau bat bilera eduki lezake, erakundeen arteko ahalik eta lankidetzarik zuzenena sor dadin.

**El 11 de febrero**

se reunió en Vitoria-Gasteiz por primera vez la Comisión de Seguimiento del Acuerdo Marco, de la que forman parte representantes del Gobierno Vasco, las tres Diputaciones forales y Eusko Ikaskuntza.

# Art-aretoa, galería virtual

*Euskonews*, la revista electrónica semanal de Eusko Ikaskuntza, tiene abierta una Sección dedicada a los artistas plásticos. Se llama ART-ARETOA y en ella los creadores presentan su currículo, exposiciones y diferentes obras ampliables en pantalla. Suman ya cincuenta los artistas que tienen colgadas sus obras de forma permanente en esta galería virtual. Para acceder al fondo de ART-ARETOA el usuario dispone de una dirección electrónica:

http://euskonew.com/art-aretoa

Todos los artistas interesados en que su obra se exponga en ART-ARETOA pueden dirigirse a:

mediateka@euskonews.com




**«Xabier de Landaburu, Euskaditik Europara».** Eusko Ikaskuntza y la Fundación Sabino Arana han preparado una exposición en torno a la figura de Xabier de Landaburu, personalidad del Consejo Vasco del Movimiento Europeo. La exposición lleva por título *Xabier de Landaburu, Euskaditik Europara*, y permanecerá abierta en la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa de Vitoria-Gasteiz del 5 al 22 de marzo de lunes a sábado.

## Tolosak bere ondarea katalogatzen du

Eusko Ikaskuntzak eta Tolosako Udalak Gipuzkoako hiri horretako ondare artistikoaren katalogaziorako ezarri zuten Beka esleitu egin da. Edorta Kortadi, Artean doktore eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak eta Jokin Ansorena Udaleko Kultura Teknikariak osaturiko Epaimahaiak Idoia Beldarrain Oñate Geografia eta Historian lizentziatuaren aldeko epaia eman zuen joan den otsailaren 21ean. Emakidaren ondoren, bi hilabeteko epea du bekadunak obren barne katalogazio lana egiteko. Obra horietariko gehienak tokiko artistek eginak dira. Zazpi proposamenek parte hartu zuten beka honetan, gipuzkoarrak guztiak.

# Dos nuevos cursos para el 2002-2003

**Eusko Ikas-kuntzak Internet**

bidez eskaintzen duen hezkuntza aukera zabaldu egin da 2002an bi ikastaro berrirekin: TICE (Merkataritza elektronikoa) eta TURNET (Landa turismoa).

El 1 de marzo se abrió el plazo de preinscripción para los másters y cursos virtuales de Eusko Ikaskuntza para el ejercicio 2002-2003. Vuelven a convocarse los ya consolidados Máster en Derecho Ambiental, Máster en Derecho del Comercio Internacional, Jakinet (Curso en Estudios Vascos), Curso en Periodismo Digital, Curso en Mercados Financieros e Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Además, este año se suman dos nuevos cursos con temáticas de actualidad:

**TICE: Tecnologías de la Información y Comercio Electrónico**

Las nuevas tecnologías de la información hacen necesaria una preparación apropiada para las relaciones comerciales en este nuevo contexto. El presente curso dispensará a los alumnos una formación en publicidad y técnicas de *marketing*, pero también en lo referente al ámbito técnico y al entorno legal de las nuevas tecnologías.

**TURNET: Gestión de empresas y proyectos de Turismo Rural**

El objetivo es formar a profesionales en la gestión competitiva de los negocios y actividades turísticas en el ámbito rural. Se estudiará la gestión empresarial con hincapié en el área comercial y económico-financiera. También se analizará la implantación de proyectos de turismo rural, su impacto ambiental y el desarrollo sostenible de esta actividad.

Para más información:

http://www.eusko-ikaskuntza.org/masters

# Beca para historiadores

Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi convocan una beca para profundizar en la historia de ese municipio alavés. Para ello se ha estructurado un plan por períodos, que en una primera parte deberá abordar la Edad Media. Las condiciones generales son:

1. El aspirante deberá ser licenciado en Geografía e Historia.

2. Disponer de conocimientos básicos de Informática (Word, Access, Internet…).

3. La beca tendrá una duración de 3 meses, debiendo entregarse los resultados del trabajo antes del 31 de octubre de 2002.

4. El importe bruto de la beca será de 1.815 euros.

5. Los empadronados en el municipio de Alegría-Dulantzi tendrán preferencia.

Los interesados deben enviar antes del 1 de abril el curriculum vitae y un plan de trabajo a la oficina de Eusko Ikaskuntza en Vitoria-Gasteiz.



Torre neoclásica de la parroquia de San Blas, Alegría-Dulantzi

# Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa Saririrako hautagaien onespena

Curriculum vitae gailenari ematen zaion Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Sariaren VIII. ekitaldi honetarako deialdia Humanitateak eta Gizarte Zientziak diziplinei dagokie. Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldeko hiru lurraldeetako batean ikerkuntza lana egiten duten ikertzaileak, zientzialariak eta kulturaren pertsona ospetsuak izan daitezke hautagai.

Sarituriko pertsonaren obrak, oro har, modu eraginkorrez lagundu behar izan du Euskal Herriko kultura garatzen.

Eusko Ikaskuntzako lehendakariak, sei euskal unibertsitateetako errektoreek, zientzia ebaluazioan ospe aitortua duen aditu batek eta Eusko Ikaskuntzako Batzorde iraunkorrean diren kultura eta zientzia erakundeen ordezkari batek osatuko dute Saria erabaki behar duen epaimahaia.

Interesatuek berek, Unibertsitateko institutu edo departamentuek eta zientzia edo kultura erakundeek aurkeztu ahal dituzte hautagaiak. Aurkezpen gutuna Eusko Ikaskuntzaren bulego nagusietara igorri behar da, hautagaiaren curriculum vitae-arekin batera, inprimaki normalizatu batean (Eusko Ikaskuntzako edozein lurralde bulegoetan, Euskadi Kutxako lurralde egoitzetan edo Eusko Ikaskuntzako webgunean eska daiteke inprimaki hori).

Sari bakarra banatuko da eta 18.000 euro da horren zenbatekoa. Hautagaiak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da.

# Viajes y viajeros en Bilbao

Eusko Ikaskuntza y Bidebarrieta Kulturgunea, Área de Cultura del Ayuntamiento de Bilbao, han previsto para los días 16 y 17 de abril el VII Symposium sobre Bilbao con el tema "Viajes, viajeros en Bilbao / Bidaiak, bidailariak Bilbon". El programa del Symposium será el siguiente:

**Día 16:**

*Visiones plásticas del Bilbao de los viajeros. Siglos XVI-XX.* Javier Viar

*Paseando en tierra enemiga. Bilbao vista a través de ojos heréticos, 1600-1674.* Carlos Rilova

*Viajeros al Bilbao Ilustrado. Las miradas plebeyas.* José Carlos Enríquez

*John Adams, USAko bigarren presidentea, Bilbon (1780) eta garai bereko Bilbori buruzko lehen gida turistikoa.* Joseba Agirreazkuenaga

*Bilbao y su ría, una escala en el viaje de Christian August Fischer (1797).* Susana Serrano

*Bilbao visto por los ingleses/británicos durante la francesada, 1808-1814.* Carlos Santacara

*Zenbait britainiar Bilbon, lehen karlistada garaian.* Mikel Alberdi

**Día 17:**

*Bilbori buruzko dokumentalen azterketa/Bilbao en los documentales: 1927-2000.*

*La imagen de Bilbao en los libros de viajeros durante el primer tercio del siglo XX.* Jesús Javier Alonso

*"Der-Bilbao-Song". Visiones de la Villa escritas en alemán.* M.A. Ingo Niebel

*La mirada del otro: el viajero francés en Bilbao.* Yvette Cardaillac-Hermosilla

*Turismo y salud. Los baños de mar en el Abra.* Antón Erkoreka

*Bilbao población de baños. Promoción turística del Abra durante la segunda mitad del siglo XIX.* José María Beascoechea

*"Bilbao Artística y Monumental. Visita de Villa-Amil".* Ramón Oleaga

*Marinetti en Bilbao.* Francisco Javier Muñoz

*Bilbao visto por Eugenio D'ors, 'Xenius'.* Jon Muruaga.

*Apostillas a las impresiones de Jacques Valdour sobre el espectáculo cinematográfico en Bilbao.* Txomin Ansola

*Hemingway eta Bilbao.* Edorta Jiménez.

**Voyages et voyageurs**

Ce Symposium rappellera les souvenirs des auteurs qui ont écrit des chroniques de voyages sur Bilbao.



# 2001eko Lekuona Saria ematea

Apirilaren 11n, osteguna, Donostiako Miramar Jauregian, Manuel Lekuona Saria José Ignacio Tellechea Idígorasi emateko ekitaldia egingo da. Sari hau urtero banatzen du Eusko Ikaskuntzak pertsona ospetsuek Euskal Herriko zientzia, arte eta kulturaren eremuan egindako lanaren aitorpen gisa.

Tellechea Idigoras (Donostia, 1928) teologian doktorea eta historia eklesiastikoan lizentziatua da, bi-biak Erromako Unibertsitate Gregorianoan; horretaz gainera, filosofia eta letretan lizentziatua da, historia sailean, Madrilgo Complutensean. Euskaltzaindiko kidea, Espainiako Errege Historiaren Akademiako kidea, bai eta Venezuela eta Mexikokoa ere; orobat, nazioarteko zientzia elkarte askotako kidea da.

Guztiz ugaria den Tellechearen obratik, euskal zientzia eta historiaren pertsonaiei buruzko lanak nabarmen daitezke, hala nola fray Bartolome Carranza, Loiolako Inazio, Aita Larramendi, Peñafloridako Konde edo Catalina de Erausori buruzkoak, banaka batzuk aipatzeagatik. Mila artikulutik gora hartzen du Tellechearen dibulgazio lanak.

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

# Gaurko premisa metodologikoak erabiliko dira

Nire asmoa kultura tradizionalaren eremuan beste arlo zientifiko batzuetan momentu honetan erabiltzen diren premisa metodologikoak erabiltzea da. Izan ere, Euskal Herrian folklore edo *kultura tradizionalari* buruzko ikerketek, beste diziplinek ez bezala, unibertsitatetik kanpo segitzen dute, ez ofizialtasun batean nolabait, eta askotan beste leku batzuetan, bereziki unibertsitateetan, egiten diren ikerketekin kontaktu handirik gabe. Zentzu honetan, ene ustez orain beharrezkoa da, Elkartearen laguntzaz, Euskal Herritik kanpoko adituen ideiak zuzenean ezagutzea ikastaro edo mintegien bidez, eta lehendabiziko pausoak eman ditugu dagoeneko.



**Karlos Sánchez Ekiza**

*Folklore Saileko Presidentea*

Horrek ez du suposatu nahi, jakina, beste gizarte-zientzietako irizpideak zuzenean ezarri behar direla, horrek ekarriko bailuke folklore diziplinaren bukaera. Metodologia horiek, askotan Antropologian, Soziologian edo Kulturaren Historian sorturik, argi ditzakete musika, dantza eta beste *tradiziozko* ekintzak, baina benetan emankorrak izateko Musika, Dantza eta beste ekintza herrikoien ikuspuntu teoriko eta praktikorekin kontaktatu behar dira: musikaririk gabe ezin da *euskal musika tradizionalari* buruz mintzatu, dantzaririk gabe ezin da *euskal dantza tradizionala* ikertu. Bestela, mundu teoriko eta urrun batean geldítzeko arrisku handian gaude: azken finean, ez oso urrun gure arloan hainbeste aldiz leporatu diguten formalismotik. Beste modu batean esanda, gaur eguneko dinamika kulturalak arlo guztietan diziplina arteko kolaborazioa eskatzen badu, argi dago behar hori bereziki Folklore arloan sentitzen dela, eta han ezarri behar direla El-ko baliabideak.

Hau kontuan izanik, gure arloan bereziki Eusko Ikaskuntza izan daiteke tradiziozko kulturaren egile eta teorikoen topagune ezin hobea: musikari eta musikologoen artean, dantzari eta ikertzaileen artean dauden mugak gainditzeko topagunea. Horretarako, saiatu behar da bai El-ko beste sail batzuekin -hala nola Antropologia edo Historia- bai beste elkarte batzuekin -Txistularien Elkartea, Eusko Dantzarien Biltzarra- harreman sakonagoetan aritzeko, une honetan sobera bereizturik dauden mundu ezberdin horiek lotzeko asmoz.

> *Eusko Ikaskuntza debe ser el lugar de encuentro de referencia para la investigación folklórica vasca.*

Ildo horretan, sailak sustatu behar ditu ez bakarrik lan teorikoak -kanpoko adituekin edo diziplina aunitzeko mintegiak eta ikastaroak, argitalpenak...- praktikoak ere baizik. Zentzu horretan ikertzaileok gero eta beharrezkoagoa sentitzen dugu tradiziozko ekintza zahar -edo berriak- teknologia berriekin grabaturik izatea leku finko batean, edozein ikertzaileren esku jartzeko, musikan Eresbil Artxiboarekin gertatzen den bezala. Eta, bukatzeko, uste dut Folklore Sailetik zerbait ekarri behar dugu mundura eta Euskal Herrian sortzen ari diren eztabaida kulturaletara: gure arloak bereziki duen objektua, Tradizioa, zenbat eta hobe ezagutzen badugu, orduan eta libreago izanen garela egungo bizimoduak egiten dizkigun erronkei -hala nola, *Globalizazioa* eta identitatea galtzeko ustezko arriskuari- aurre egiteko.

## LIBURUAK

**Gipuzkoa Natur Parkeak / Gipuzkoa Parques Naturales**

DORIA, Iñigo; ARRUGAETA, Gema
Donostia: Kutxa, 2001

Liburu honetan, Gipuzkoako lurraldeko lau Parke Naturalak (Aralar, Aizkorri, Aia-Urdaburu eta Pagoeta) ondare estetiko berezi gisa agertzen dira, Gema Arrugaetaren formatu handiko argazkiei esker, bai eta ondare natural eta etnografiko gisa ere, eta horretaz sentsibilizatzen gaitzte -diseinua eta maketazioa ere egin dituen- Iñigo Doriaren deskripzioek, xeheki eta luma egokiz onduak eta argazki oinetan, iruzkinetan, fitxetan eta glosarioan banaturik daudenak. Liburuak, beraz, bikain betetzen du helburu bikoitz hau: objektu ederra da berez, eta, era berean, funtsezko dokumentazio obra dugu.




## Agenda

**Marzo**

1: Abierto el plazo de preinscripción a los cursos MIDA, MICI, JAKINET, KD, FIME, HIZNET, TICE, TURNET

4-22: Gasteiz. *Exposición Xabier de Landaburu, Euskaditik Europara*

21: Gasteiz. Mesa redonda sobre Xabier de Landaburu y el Movimiento Europeo

**Abril**

11: Donostia. Entrega del Premio Manuel de Lekuona 2001

15-17: VII Symposium "Viajes, viajeros y turistas en Bilbao"

30: Beca Eusko Ikaskuntza-Institut d'Estudis Catalans. Concluye el plazo de presentación

30: Termina el plazo de presentación de candidatos al Premio de Humanidades y Ciencias Sociales 2002 de El-CL

**Mayo**

23-25: Bilbao. Jornadas de Antropología

25: Asamblea General de Socios

http://www.eusko-ikaskuntza.org/





## Ainhoa eta Roldanen ezkontza

Ainhoa Nieva eta Roldán Jimeno, elkarteko bazkide eta Iruñeko bulegoko lankideak martxoaren 23an, larunbata, ezkonduko dira Nafarroako hiriburuko Jesusen Bihotzaren Mirabeen elizan. Bihotz-bihotzez opa nahi diegu hemendik, bizitza zoriontsu, oparo eta guztiz luzea izan dezaten elkarrekin. *Zorionak!*

Argitaratzailea: Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Zuzendaria: Josemari Velez de Mendizabal. - L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861. Inprimategia: Juaristi. Itziar
Harpidetzak: Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:
Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak: Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Tel. 943-310855. Fax 943-213956. E-mail: ei-sev@sk.ehu.es. Arabako Bulegoa: San Antonio, 41. 01005 GASTEIZ. Tel. 945-231552. Fax 945-148752. E-mail: eigazteiz@infonegocio.com. Bizkaiko Bulegoa: María Díaz de Haro, 11-1. 48013 BILBAO. Tel. 94-4425287. Fax 94-4414650. E-mail: eibilbo@infonegocio.com. Nafarroako Bulegoa: Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D. 31001 IRUÑEA. Tel. 948-222105. Fax 948-211737. E-mail: gaztelu@infonegocio.com. Iparraldeko Bulegoa: Faculté Pluridisciplinaire, 29-31, cours du Comte de Cabarrus. 64100 BAIONA. Tel. 559 529299. Fax 559 310518. E-mail: Eusko.Ikaskuntza@univ-pau.fr